



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko ekainaren 29a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalarari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak, eta elkartasuna adierazten dio gertaera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, ekainaren 28a, LGTBQ Kolektiboaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan 132 milioi euroko murrizketa egitea arbuizatzen baita. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu Osasun publikoaren aldeko Erriberako Plataformaren eskaerak. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Martxoaren 29ko greba orokorrean bizipikete batean parte hartu zuten pertsonen babeserako adierazpen instituzionala. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, babeste aldera ETA talde terroristaren mehatxuak zirela-eta Nafarroatik eta Euskaditik alde egin behar izan zuten pertsonak beren jatorrizko tokian botoa eman ahal izatea. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die Inasako langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko ezagutzen ote diren Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala laneko bajei dagokienez egiten ari den jarduketak, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (15. or.).

—Galdera, Nafarroako Kutzako estatutu-aldaketei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).

—Galdera, jakiteko zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutzaren ikuskapenik, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).

—Galdera, atmosferara isurtzen diren gas-kantitateak areagotzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluko ordezkariak hautatzeari buruzko arauak (18. or.).

—Mahaiaren erabakia, 2012ko ekainaren 25ekoa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen urteko lanaldia aldatzen baita (19. or.).

—Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko ekainaren 13an hartutako erabakiaren bidez, Foru Lege proiektu hau igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Aipatu Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.
2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko irailaren 24an eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu zen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri.

Arauren izena hori bazen ere, berez, ez da entitate publiko bat sortu; izan ere, 2. artikuluan, haren izaera eta araubide juridikoa azaltzen dituelarik, adierazten du Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpeko gainerako zentro publikoen izaera eta araubide juridiko bera izanzen duela. "Zentro publikoak" deiturikoak, egiazki, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko unitate organikoak dira, nortasun juridikorik gabeak. Hortaz, bidezkoa da foru legearen izena aldatzea, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzeko bidea izan dadin.

Arau honek honako eginkizun hauek esleitzen dizkio Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuari: giza odoletik eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuen osasun-premiei erantzutea eta produktu horien lorpena, biltegitratzea, kudeaketa eta hornidura bermatzea, eta, orobat, emateen eta transplanteen koordinazio autonomikoa eta Transplanteen Erakunde Nazionalarekiko koordinazioa egitea.

Irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretuak odol-emateen eta transfusiorako zentro eta zerbitzuen gutxieneko baldintza eta betebeharrak ezarri zituen. Bestalde, azaroaren 10eko 1301/2006 Errege Dekretuak giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezarri zituen, eta horiek gizakiekin erabiltzeko koordinazio eta funtzionamendu arauak onetsi. Bi arau horietan antolaketa eredu beraren alde egiten da. Bien arteko ezberdintasun nagusia da arau-

tzen duten gaia: batetik, odola eta odolaren gaiak, eta bestetik, zelulak eta ehunak.

Organo-emateen eta transplanteen alorreko lurralde koordinazioa eta giza organoak lortzeko eta klinikoki erabiltzeko jarduerak abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretuan arautzen dira. Prozesu horiek ospitale eremuetan baizik ez dira egiten. Horren ondorioetarako, Nafarroan badira Nafarroako transplanteen koordinatzaile bat, koordinatzaile bat Nafarroako A Ospitalegunean eta beste bat Nafarroako B Ospitalegunean.

Azaldutakoagatik, ondorioztatzen da aipatutako 20/2010 Foru Legeak elkarren artean oso ezberdinak diren bi jarduera utzi dituela Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren esku: batetik, odolari, zelulei eta ehunei dagokiena, eta bestetik organoen emate eta transplantei buruzkoa.

Arau horren aplikazioa aztertzeko, Aholku Batzorde Tekniko bat sortu zen, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aplikatuz, horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publiko bat sortu baitzen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri. Batzorde horrek, non arloko espezialistak aritzen baitira, proposamen bat egin du foru lege bat tramitatu dadila, 20/2010 Foru Legetik kentzeko, bai giza organoak lortu eta klinikoki erabiltzearekin zerikusia duten alderdi guztiak, bai organoen emate eta transplanteen lurraldeko eta erkidegoko koordinazioa, baita aurreproiektuaren tramitazioaldian beharrezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak ere.

Aholku Batzorde Teknikoak kontuan hartu du organoen ematearen eta erauzketaren gainean dagoen araudia; izan ere, araudi horretan ez dago inolako aipamenik transplanteen koordinazio autonomikoaren menpekotasunaren gainean. Proposatutako aldaketaren arabera, zeina ontzat hartu baita, ez da koherentea eta eraginkorra aipatutako jarduerak bateratzea Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren barrenean.

Giza organoen inguruko alderdiak kentzearekin batera, Ehun eta Organoen Batzorde Teknikoa Ehunen Batzorde Teknikoa deitzera pasako da.

Bestalde, aipatutako 20/2010 Foru Legeak Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa eta antolamendukoa ezartzen du, neurri batean. Bertan, Kudeaketaren eta Giza Baliabideen zuzendariorde bat eta zuzendari bat arautzen dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-aren antolaketaren araudian ezarritako dagoen moduz bestela (araudi hori, batez ere, erakunde horren estatutuak onetsi dituen uztailaren 3ko 45/2006 45/2006 Foru Dekretuan jasota dago).

Administrazioaren barne-egiturak dinamikoa izan behar du, eta koordinazioa eta koherentzia behar ditu. Horregatik, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoaren gaineko araua kentzen da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura organikoaren gainerako egitura organikoarekin batera gara dadin, unean uneko benetako beharretara egokitzeko orduan, tresna juridiko egokiago eta arinago baten bidez izan dadin.

Artikulu bakarra. Abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legearen aldaketa. Foru lege horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu zen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri.

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legean:

Ba. Arauaren izena aldatzen da, hemendik aurrera hauxe izanen baita:

“20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena”

Bj. 1. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzea, Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Medikoari atxikitako unitate organikoa den osasun zentro gisa”

Hiru. 2. artikulua kentzen da.

Lau. 3. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“3. artikulua. Helburua.

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren helburua izanen da giza odoletik eta giza zelula eta ehunetatik eratorritako produktuen osasun premiei erantzutea, bai osasun sare publikoaren bai osasun pribatuaren eta itunduaren esparruan. Produktu horiek lortu, biltegitatu, kudeatu eta hornitzea bermatuko da uneko baliabideen arabera.

2. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak Nafarroako Transfusioen eta Ehunen eta Zelulen Sarea koordinatuko du.”

Bost. 4. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“4. artikulua. Doakotasuna eta irabazi-asmorik eza.

Odola, zelulak eta ehunak emateari buruzko Europako gidalerroetako oinarritzko printzipioak aplikatuz, ematea ekintza boluntariorat eta altruistatza jotzen da, eta emaleak ezin du ordain ekonomikorik jaso; halaber, hartzaileari ere ez zaio inolako ordainik eskatuko erabilitako odol, zelula eta ehunengatik. Odol, zelula eta ehun zentroen jarduerak ez dute irabazi-asmorik izanen, eta soil-soilik ordainarazi ahalko dira baimendutako jarduerak egiteagatik emandako zerbitzuen egiazko kostuak”

Sei. 5. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“5. artikulua. Helburuak.

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak honako helburu orokor hauek ditu:

a) Odol-emateen eta transfusiorako zentro eta zerbitzuen gutxieneko baldintza eta betebeharrak teknikoak ezarri zituen irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretua bete dadin begiratzea eta Nafarroako Gobernuaren gidalerro estrategikoak betetzea hemoterapiari eta osasun erabilerarako giza zelulak eta ehunak lortzeari dagokionez, bai eta arlo horretan Osasun Departamentuak zehazten duen politikari dagokionez ere.

b) Nafarroan emate doakoa eta altruista sustatu eta bultzatzea, eta beharrezkotzat jotzen diren azpiegituren eraikuntza eta zerbitzuen ematean laguntzea.

c) Nafarroako Administrazioaren aurrean jardutea premien asetze orokorra lortzeko eta odola, zelulak eta ehunak bana dakizkien haien beharrenda osasun zentro guztiei.

d) Nafarroaren beregaintasuna lortzea odolari eta hemoderibatuei dagokionez.

e) Nafarroako Administrazioaren jarduna koordinatzea beste administrazio publiko eta entitate publiko edo pribatu batzuenarekin, emateari dagokionez, nork bere eginkizunen esparruan.

f) Odol homologoarekiko eta hemoderibatuekiko esposizioaren murrizketa sustatzea, erabilera gomendioak eta indikazioak eguneratuz eta jakinaraziz eta transfusioaren beste alternatiba batzuk indartuz, autotransfusioaren modalitate guztiak barne.

g) Emalearengandik hartzailearenganako trazabilitatea eta alderantzizkoa ere bermatzea, Nafarroan banaturiko odol, odol-osagai, zelula eta ehunetarako.

h) Hemozainketa sarea koordinatzea Foru Komunitatearen barrenean, eta sarearen koordina-

tzaile gisa jardutea estatuan, otsailaren 9ko SCO/322/2007 Aginduekin bat”

Zazpi. 6. artikulua 2. idatz-zatiaren b) letra eta 3. eta 4. idatz-zatiak kentzen dira.

Zortzi. 6. artikuluko 2. idatz-zatiaren i) letra aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da:

“i) Emaileen seroteka edo plasmoteka bat mantentzea.”

Bederatzi. 7. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da:

“7. artikulua. Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelulen eta Ehunen Sarea.

Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelulen eta Ehunen Sarea honako hauek osatuko dute:

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua.
2. Ospitaleetako transfusio zerbitzuak.
3. Giza ehunak lortu eta/edo inplantatzeko ospitale-unitateak”

Hamar. 9. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da:

“9. artikulua. Giza zelula eta ehunak lortu eta inplantatzeko unitateak.

1. Foru Komunitateko ospitale publiko eta pribatuetan giza zelula eta ehunak lortu eta/edo inplantatzeko dauden unitateek bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den titulazioa daukan arduradun bat izanen dute zuzendari.

2. Giza zelula eta ehunak lortu eta/edo inplantatzeko zentroek honako berariazko eginkizun hauek beteko dituzte Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelulen eta Ehunen Sarearen esparruan:

a) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuarekin eta Nafarroako transplanteen koordinatzailearekin lan-kidetzan aritzea giza zelulen eta ehunen emate altruista sustatzeko ospitale barneko eta ospitalez kanpoko esparruan.

b) Behar diren neurriak hartzea, era horretan ziurtatzeko ezen haietan ingesatzen diren herritar guztiek eta beren ahaideek helburu terapeutikoe-tarako ehunen ematearen eta erauzketaren gaineko araubidea osoki ezagutzen dutela.

c) Giza ehunak lortu, gorde, garraiatu eta inplantatzeko kalitate-programan parte hartzea, prozesu osoaren kalitate-kontrola ziurtatuz, egoki diren azterlan eta behaketen bitartez, eta 1301/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa betez, horren bidez giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko

kalitate eta segurtasun arauak ezarri baitziren, eta horiek gizakiekin erabiltzeko koordinazio eta funtzionamendu arauak onetsi.

d) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuarekin lan-kidetzan aritzea ezartzen diren irakaskuntza eta ikerketa programetan.

e) Zelulen eta ehunen erauzketen eta inplanteen erregistro eguneratu bat mantentzea, bai eta zentroaren jarduerarekin zerikusia duten administrazio alderdi guztiena ere.

f) Baimenduta duten jarduerari buruz eskatzen zaien informazio guztia ematea, eskatzen den forman eta moduan”

Hamaika. 10. artikulua kentzen da.

Hamabi. 11. artikulua kentzen da.

Hamahiru. 12. artikulua kentzen da.

Hamalau. 13. artikulua kentzen da.

Hamabost. 14. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da::

“14. artikulua. Hemoterapia Batzordea.

1. Hemoterapia arloan eta Nafarroako hemozaintza sistemaren funtzionamenduari dagokionez aholkularitza tekniko emateko organo gisa eratzten da Hemoterapia Batzordea, honako hauei aholku emateko: osasun arloko agintariei, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari eta Nafarroako osasun laguntzako zentro eta zerbitzuei. Hemoterapia Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Batzordeburua: Osasuneko zuzendari nagusia, edo hark eskuordetutako pertsona bat.

b) Idazkaria: Nafarroako Hemozaintzako koordinatzailea.

c) Batzordekideak:

c.1) Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari medikoa.

c.2) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko zuzendaria.

c.3) Nafarroako transplanteen koordinatzailea.

c.4) Nafarroako ospitale-zentro publiko eta pribatu guztietako transfusio zerbitzuen arduradunak.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu direnen lankidetzak izaten ahalko da.

2. Hemoterapia Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Odolaren eta hemoderibatuen ematearen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko Nafarroako

Odol eta Ehun Bankuko zerbitzuen estaldura maila edo haien behar teknikoekiko egokitzapen maila.

b) Nafarroako hemozaintzako koordinatzailearen urteko txostena onestea.

c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura ere, eta haiek ondoren izan beharreko ebaluazioa, Hemoterapia Batzorde Nazionalak erabakita-koaren ildotik.

d) Jarduketak proposatzea, beharra duten osasun zentro guztietan odolaren eta hemoderibatuen beharren asetze-maila eta haien banaketa hobetzeko.

e) Transfusioen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere, ospitaleetako transfusio batzordeen bitartez, kasua bada.

f) Osasun arloko agintariei eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeaketa-zuzendaritzari informazioa ematea haiek ezartzen duten moduan eta maiztasunarekin, eta, betiere, osasun publikoan eragina izan lezakeen edozein alarma-edo larrialdi-egoeratan.

3. Hemoterapia Batzordearen funtzionamendua bat etorriko da batzordeak berak onesten duen barne-araudiarekin.”

Hamasei. 15. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“15. artikulua. Ehunen Batzorde Teknikoa.

1. Zelulen eta ehunen alorrean Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari aholku emateko organo gisa, ehunen batzorde tekniko bat arituko da, honako hauek osatua:

a) Batzordeburua: Osasuneko zuzendari nagusia, edo horrek eskuordetutako pertsona bat.

b) Idazkaria: Nafarroako transplanteen koordinatzailea, edo horrek eskuordetutako pertsona bat.

c) Batzordekideak:

c.1) Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari medikoa, edo horrek eskuordetutako pertsona bat.

c.2) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko zuzendaria.

c.3) Ospitale publiko eta pribatuetan ehunak lortu eta/edo inplantatzeko dauden unitateetatik arduradun bana, zentroko zuzendariak proposatuta.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaitan aditu direnen lankidetzat izaten ahalko da.

2. Ehunen Batzorde Teknikoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sei hilabete behin zelulen eta ehunen detekzioaren, ematearen, lortzearen eta inplanteen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko baimendutako zerbitzuen estaldura maila edo haien berri-kan teknikoekiko egokitzapen maila.

b) Nafarroako Biozaintzaren urteko txostena onestea.

c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura, eta haiek ondoren izan beharreko ebaluazioa nahiz egoki diren zuzenketa-ekintzen ezarpena ere.

d) Jarduketak proposatzea, beharra duten osasun zentro guztietan zelulen eta ehunen beharren asetze-maila eta haien banaketa hobetzeko.

e) Ehun-inplanteen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere, haien kontrolerako eraturiko ospitale-batzordeen bitartez, kasua bada.

f) Osasun arloko agintariei eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa-Zuzendaritzari informazioa ematea haiek ezartzen duten moduan eta maiztasunarekin, eta, betiere, osasun publikoan eragina izan lezakeen edozein alarma-edo larrialdi-egoeratan.

3. Ehunen Batzorde Teknikoaren funtzionamendua bat etorriko da batzordeak berak onesten duen barne-araudiarekin.”

Hamazazpi. 16. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“16. artikulua. Ospitaleetako transfusio batzordeak.

1. Ospitale bakoitzean, hala publikoetan nola pribatuetan, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak hornituriko odolaren eta hemoderibatuen kudeaketa modurik onenean egiteaz arduratzen diren organoak dira ospitaleetako transfusio batzordeak.

2. Kide hauek izanen dituzte:

a) Batzordeburua: Ospitale-zentroko zuzendari medikoa.

b) Idazkaria: Ospitale-zentroko transfusio zerbitzuaren arduraduna.

c) Batzordekideak:

c.1) Nafarroako hemozaintzako koordinatzailea, edo horrek eskuordetutako pertsona bat.

c.2) Ospitaleko arlo klinikoan, zerbitzuen, atalen edo unitateen ordezkari arituko diren fakultati-boak, arlo hauekikoak, baldin badaude: anestesia, bihotzeko kirurgia, kirurgia orokorra, kirurgia bas-kularra, toraxeko kirurgia, medikuntza intentsiboa, hematologia, barne-medikuntza, nefrologia, obstetrizia, onkologia, pediatria, kirurgia ortopedi-koa/traumatologia eta larrialdiak.

c.3) Erizaintzako Zuzendaritzaren ordezkari bat, laborategiko teknikari espezialista bat eta Hemoterapia Unitateko erizain bat.

Batzordekideek hala eskaturik, jorratu beharreko gaietan aditu direnen lankidetzaz izaten ahalko da.

3. Ospitaleetako transfusio batzordeek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Zehaztea zer estandar eta prozedura aplikatu diren transfusioetan, ospitale-zentro bakoitzean egiten diren jarduerak klinikoen arabera.

b) Zentroaren jarduerak ebaluatzea, transfusio-estatistika aztertuz, eta zuzenketa-neurriak proposatzea, aurreikusitakoarekiko desbideraketarik egonez gero

c) Ospitaleen esparruan odolaren eta hemoderibatuen erabilierarik egokiena sustatzea.

d) Transfusioarekin zerikusia duten irakaskuntza jarduerak sustatzea zeregin horretan aritzen diren osasun arloko langileen artean.

e) Transfusio alorrarekin zerikusia duen dotazio teknikoak, materialak eta pertsonalak ebaluatzea.

f) Transfusioetako protokoloen berri ematea (laginak ateratzea, identifikatzea, osagai motak eta bolumena, eskariak eta erabilera plana).

g) Erabateko odol-transfusio guztiak ebaluatzea.

h) Egiazaturiko transfusio-erreakzio guztiak ebaluatzea.

i) Autotransfusioak sustatzea, horrek dituen indikazio terapeutikoen barruan.

j) Emateak sustatzea ospitaleen esparruan.

k) Beste ospitale batzuekiko eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankuarekiko lankidetzari eustea.

l) Odol-ematearen, transfusioaren eta hemoderibatuen arloetan indarra duen legedia zentroaren barrenean bete dadin begiratzea”

Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egungo egiturari eustea.

Foru lege honen hamabigarren eta hamahirugarren puntuen indar-hartzea etenik gelditzen da Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura organikoa garatu arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeak.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak eta, bereziki, uztailaren 1eko 199/1988 Foru Dekretua, Nafarroako Hemoterapiako Batzorde Teknikoa sortu zuena.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzen.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donapea IPIa orain dagoen tokian mantentzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Gobernuak FIMari saldu nahi dizkio —Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Fundazioa, Nafarroako Unibertsitateari lotua— Donapea Ikastetxe Politekniko Integralak egun hartzen dituen lursailak, eta ikastetxe horrentzako instalazio berriak eraiki nahi ditu, une honetan Udalarenak diren lursail batzuetan. Nafarroako Gobernua, hortaz, ez dago lursail horiek baliatzeko moduan.

Operazio hori oso eztabaidatua izan da hasieratik bertatik; hain zuzen ere, 2011ko martxoaren 18an Nafarroako Gobernuak FIMari lursail horiek saltzeko hitzarmena sinatu zenetik.

Argudio ugari daude Donapea IPIa orain dela 30 urtetik gora hartzen dituen lursailetatik ez lekualdatzeko. Argudio horiek agerian uzten dute lekualdatze hori zeharo arrazoirik gabea dela, ez baitago lekualdatzea justifikatzeko arrazoirik, ez hezkuntza arlokorik, ez interes orokorrekorik, ez onura publikokorik, ezta gizarte arlokorik ere.

1. Nafarroako Unibertsitateak bere lurzatietan badu eraikitze-ahalmen nahikoa eta gehiago, Iruñeko campusean eraiki ahal izateko FIMaren hiru ikerketa zentro berriak (Ingeniaritza Biomedikoa, Gaixotasun Ahantziak eta Nutrizioa eta dietetika).

2. Nafarroako Gobernua ez da operazio honek ukitutako lursailen jabea.

3. Lanbide Heziketa publikoa hobetzeko ez dago zertan saldu daukaguna eta funtzionatzen duena; aitzitik, bete gabe dauden beharrezko erantzun behar zaie. Kasu honetan, horrenbestez, Sanitaria BHI berri bat hartzeko eraikin bat egin beharko litzateke soilik, eta Donapea IPIren egungo instalazioak hobetu; alegia, ikastetxearen lekualdatzearekin baino askoz ere inbertsio txikiagoa egin beharko litzateke.

4. Egungo krisi testuinguruan, kontuan hartuta Nafarroaren kontuen egoera txarra dela, zeharo zentzugabea eta justifikaziorik gabea da 25.000.000 euro inbertitzea Donapea IPIa lekuz aldatzeko, horretarako beharrik ez baldin badago, ikastetxeko irakasleek berek berretsi duten bezala.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan lekuz alda Donapea Ikastetxe Politekniko Integrala, eta, hortaz, aipatu ikastetxea bere egungo kokalekuan mantentzen.

Iruñean, 2012ko ekainaren 18an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete dezan Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñeko Udalak, 2011ko irailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, onetsi egin zuen "San Frantzisko-koliburutegia hiriaren liburutegi nagusi gisa irekitzea eta liburutegi nagusi gisa egokitzea funts bibliografikoei, zerbitzuei nahiz jendaurreko ordu-tegiari dagokienez".

Obren iragarpena egin zen egunetik gaur arte, nabarmendu beharreko zenbait gertakari izan dira. Alde batetik, argi dago Alde Zaharreko bizilagunek kezka eta interesa dutela, liburutegia zer izanen den edo zer izan daitekeen jakiteko. Beste alde batetik, Udalaren Gobernu Batzordeak eta Nafarroako Gobernuak berehala negoziatu behar dute liburutegi publiko hori arautuko duen hitzarmena, eta horren norainokoa eta interesa aintzat

hartuta, Parlamentu honetako talde politikoei negoziazio horren nondik norakoak ezagutzea dagokie, herritarrei emandako zerbitzu sozial bat baita.

Horrenbestez, parlamentu-talde sinatzaileok uste dugu sinatu beharreko hitzarmenaren partaide izan beharko genukeela, eta, hartara, ondokoa erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan Nafarroako Gobernuko Ondareko zuzendari nagusiaren otsailaren 10eko 27/2011 Ebazpena, zeinaren bidez San Frantzisko plazako eraikina Iruñeko Udalari doan lagatzen baitio, bertan Iruñeko liburutegia jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Hiriko Liburutegi Nagusi" horren izaera berezia defini dezan eta kulturareferentziako entitatea izan dadin bere tokiko funtsari dagokionez eta tokiko informaziogune gisa, erdigunean egoteagatik, Liburutegi Publikoen Sarearen barrenean duen administrazio-mailagatik, eta pertsona asko eta askorentzat urte askoan erreferentziazko tokia izateagatik.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jendaurreko arreta-zerbitzu jarraitua eman dezan asteleheneetik larunbatera, 08:30etik 20:30era, eta, hortaz, behar diren giza baliabideak jar ditzan ordu-tegi hori betetze aldera, Nafarroako Gobernuaren deialdi publikoetatik.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarriko funts bat eduki dezan, 15.000 dokumentukoa gutxienez ere, liburutegia irekitzeko, eta bi erakundeek aurrekontu egoki bat eslei diezaioten funts hori osatzeko, bai Gobernuarentzat bai udalarentzat egokia den ehunekoan. Liburutegietako zerbitzu teknikoek kalkulatu dute zenbateko kontusial behar den oinarriko funts hori osatzeko. Konpromisoa heldu diren hiru urteetan har dezaten premiatzen ditugu, hasierako funts hori baliagarria izan dadin.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Alde Zaharrak eta Iruñak berezkoak dituen elebitasun-ezaugarriak aintzat

har ditzaten, eta hizkuntza-harmoniaren eredu izan dadin.

6. Ikusita bizilagunen parte-hartzea zer garrantzitsua den Alde Zaharreko biztanleriaren beharri-zanak eta desioak taxutzean –garrantzi hori islatzen du Alde Zaharreko Liburutegi Duin Baten Aldeko Lantaldeak prestatutako "Erkidegoaren Desiderata" izeneko dokumentuak–, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan dokumentu hori, liburutegi publikoaren lan-tresna gisa.

7. Kultur erakunde publikoa den aldetik, Nafarroako Gobernua premiatzen da irisgarritasunaren arloko legedi indarduna betetzen dela ikuska dezan, hartara bermatuz herritar orok erabili ahal izanen duten zerbitzu bat dela, duten egoera dutela ere. Iruñeko nahiz Nafarroako gobernuak premiatzen ditugu ikuskapen horretan, irisgarritasunari dagokionez, gai honetan ukituak diren elkarte zibilen laguntza eska dezaten, auditore lana elkarte horiek egite aldera.

8. Bai bere filosofian, bai bere izaera publiko eta unibertsalean, UNESCO eta IFLA (liburutegi-erakundearen erreferentzia) bezalako erakundeek eta Liburutegi Publikoaren Manifestuak (1994) ezarritako nazioarteko jarraibideak bete ditzen premiatzen dugu, eta bizikidetasuneko, gogaidetasu-

neko eta aniztasuneko lekua izan dadin, eta hori dena isla dezan bere funtsen nahiz bere kultur-hedapenaren bidez.

9. Behar adina kudeaketa-tresna edukitzeraz premiatzen dugu, halako moduan non herritarrak partaide sentituko baitira haren garapen kultural eta sozialean; kontuan har daitezzen haien eskaerak eta lankidetzan aritu nahi duten erkidego-entitate guztiekin aritu dadin lankidetzan, bereziki Alde Zaharrekoekin, txertatua dagoen erkidegoko liburutegia izan dadin.

10. Zerbitzu publikoa den aldetik, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren indarreko arauak bete ditzan oro har; esaterako, Liburutegi Zerbitzuen Zorroa eta Irakurketa Publikoaren Mapa.

11. Kulturaren Vianako Printzea saridun Pablo Antoñana Chasco idazle vianarraren omenez, eta haren lana eta Iruñeko Alde Zaharrari zion estimu ezaguna aintzat hartuz, bi erakunde horiek premiatzen ditugu "Iruñeko Udalaren Pablo Antoñana liburutegia" izena eman diezaioten ofizialki.

Iruñean, 2012ko ekainaren 21ean

Foru parlamentariak: Patxi Leuza García, Aitziber Sarasola Jaca eta Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak, eta elkartasuna adierazten dio gertaera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadila Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu iragan apirilaren 5ean Bilbon izandako gertakariak, eta elkartasuna adierazten baitio ger-

taera horien ondorioz hil zen Iñigo Cabacas Liceranzuren familiari. Mozioa 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, ekainaren 28a, LGBTQ Kolektiboaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Bere elkartasuna adierazten die beren sexu-joera edo genero-nortasuna direla-eta diskriminazio larriak pairatzen jarraitzen duten milioika pertsoneri, eta dei egiten die herritarrei eta gainontzeko erakunde publikoei, homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatu daitezten.

2.- Transexualitatea despatologizatzearen alde egiten du, eta bat egiten du DSM eta CIE psikiatria-eskuliburuetatik genero-disforia kentzeko eskaerarekin eta Transexualitatea Despatologizatzearen aldeko Nazioarteko Sarera bidaltzearekin.

3.- Aitortzen du beharrezkoa dela informazio eta sentsibilizazio ekintzak sustatzea, kontzientzia solidario berri bat sortzen lagunduko dutenak eta homosexual, lesbiana, transexual eta transgene-

roekikiko aurreiritziak eta fobiak kentzen eta haiekiko jarrera aldatzen lagunduko dutenak, zertarako eta herritartasun-eskubide guztiak egiaz baliatzeko moduan bizi ahal izan daitezten.

4.- Nafarroako Gobernuari eskatzen dio susta dezan administrazio publikoen zerbitzuko langileen gaikuntza, zeharkako ikuspegi batetik har ditzaten generoarekin, lesbofobiarekin, transfobiarekin eta homofobiarekin lotutako auziak.

5.- Politikoki babesten du LGBTQ kolektiboaren eskubide eta askatasun publikoen defentsa, zeinei bere aitortza eta esker ona helarazten baitie, eta diskriminazioaren aurkako politika aktiboak sustatuko ditu, sexu-orientazio eta -identifikazio ezberdinen normalizaziora bideratuta, eta jarrera ireki garbi batekin beteko du zeregin hori, dauden aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan 132 milioi euroko murrizketa egitea arbuiatzen baita.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorretan 132 milioi euroko murrizketa egin izana, eta horren balorazio oso negatiboa egiten du. Murrizketa Nafarroako Gobernuak onetsi zuen, iragan ekainaren 20an

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuak 132 milioi euroko aurrekontu-murrizketa hori erretiratzearen alde dagoe-la.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25a

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu Osasun publikoaren aldeko Erriberako Plataformaren eskaerak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babesten ditu Osasun publikoaren aldeko Erriberako Plataformaren erreibindikazioak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, denentzako osasun zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa ziurtatze aldera lan egiteko, bazterketarik gabe, bai eta osasun zerbitzu hori zergen bidez ordain dadin ere.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Martxoaren 29ko greba orokorrean bizipikete batean parte hartu zuten pertsonen babesa erakusteko adierazpen instituzionala.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Pikete hori protesta modu gisa zilegi zela jotzen dugu, eta nabarmendu behar dugu greba orokor baten testuinguruan guztiz aurreikustekoa eta ulertzekoa dela haren tamaina handia eta bide publikoan sortutako eragina.

2.- Jotzen dugu poliziaren esku-hartzea antolaketak eta aurreikuspen-jarduketak batetik oso urrunkoa izan zela. Udaltzaingoak, bere jarduketan, ziklistek greba orokorrean parte hartzeko zeukaten eskubidea bermatu beharko zuen, manifestaziorako, adierazpen askatasunerako eta libreki zirkulatzeko eskubideak hertsatu gabe. Bai eta agintari horiek errespetuz tratatuak izateko eskubidea ere.

3.- Errefusa erakusten dugu bizikletak konfiskatu izateagatik eta zehapenak ezartzeko aurreikusten den aukerarengatik, guztiz justifikatugabe-

ak izateagatik, bai edukiari bai erabilitako formei dagokienez. Ezin zaio protesta horri inongo desordena publikorik egotzi, eta identifikazio aleatorioak ere ez dira onargarriak; are gutxiago, ustezko zehapenen tipifikazioa aldatzeko eskaria, Iruñeko Udaleko Hiritarren Segurtasunerako Alorrak eginkoa, arinak izatetik larriak izatera pasa daitezten. Izan ere, jokabide horrek berarekin ekarri du espedienteak igortzea Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak.

4.- Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea erakusten du Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aintzat har ditzan salatutako pertsonen aurkeztutako alegazioak, irekitako zehapen espedientea artxiba dezan eta proposatutako zehapenak eragin gabe utz ditzan.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, babeste aldera ETA talde terroristaren mehatxuak zirela-eta Nafarroatik eta Euskaditik alde egin behar izan zuten pertsonak beren jatorrizko tokian botoa eman ahal izatea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna, aitortpena eta babesa eskaintzen die Nafarroatik eta Euskaditik ETA talde terroristaren eta ingurune erradikalaren mehatxuen eraginez alde egin behar izan zuten pertsonei.

2.- Nafarroako Parlamentuak aldeztu du bizitokia libreki hautatu ahal izatea eta hari lotutako parte-hartze publiko eta politikorako gaitasuna herritarren funtsezko eskubideak direla.

3.- Nafarroako Parlamentuak bi eskubide horiek berrezartzearen alde egiten du, gizarteak oro har terrorismoaren biktima izan direnekiko aitortpenaren erakusgarri.

4.- Horri dagokionez, Nafarroako Parlamentuak babesten du ETA talde terroristak mehatxupean, Nafarroatik eta Euskaditik alde egin behar izan zutenek beren jatorrizko tokietan botoa eman ahal izatea.

5.- Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko eskudunak premiatzen ditu legedia alda dezaten, bidezkoa bada eta behar diren azterlan juridikoak egin ondoren, ETA talde terroristak mehatxatuta Nafarroatik eta Euskaditik alde egin behar izan zuten herritarrek beren jatorrizko tokietan botoa eman ahal dezaten.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die Inasako langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten die INASako langileei, eta oso positiboki balioesten du beren lan baldintzak direla-eta haiek erakutsitako eskuzabaltasuna, enpresa ez ixtearen ordezkoko konponbide baterako eskaintza gisa.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua bultzatzen du enpresaren bideragarritasun plan bat azter dezan, plan horren bitartez itxteaz bestelako aukerak zehazteko, dela zuzenean, dela bere enpresa publikoen bitartez.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua bultzatzen du legezkotasunaren ikuspuntutik bere esku dituen tresna guztiak erabil ditzan langileen eskubideak defendatze aldera.

4.- Nafarroako Parlamentuak Baikal enpresari emendiozko ahalegin bat eskatzen dio, planteatutako itxieraz bestelako aukerak bilatu eta aurki ditzan.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ezagutzen ote diren Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala laneko bajei dagokienez egiten ari den jarduketak.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ezagutzen ote diren Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala laneko bajei dagokienez egiten ari den jarduketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak egoki deritzon pertsonak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ezagutzen al ditu –Osasunbidearen, Lan Osasunaren nahiz bere eskumeneko beste edozeinen bidez– Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala egiten ari den jarduketak, laneko bajei dagokienez eta, are, baja horiek direla-eta Osasunbidearen osasun etxeetako sendagileek egiten duten kudeaketak eragindako gatazka-egoerari dagokionez?

Iruñean, 2012ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Nafarroako Kutxako estatutu-aldaketei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxako estatutu-aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak soilik alda ditzake, Ogasun Ministerioarekin ados jarrita, Nafarroako Kutzaren estatutuak. Aldaketak egon baldin badira –erakundearen xedeari buruzkoak nahiz, esatera-

ko, Sortzaileen Batzarreko Batzorde Iraunkorraren organoa sartzeko edo beste ekimen batzuetarako–, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak, Ogasun Ministerioarekin ados jarrita –izan ere, horiek dira aldagetak egiteko ahalmena dutenak–, zertan aldatu ditu Nafarroako Kutzaren estatutuak?

Iruñean, 2012ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutzaren ikuskapenik.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutzaren ikuskapenik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutzaren estatutuen arabera, "Nafarroako Kutzaren ikuskapen arrunta" izeneko egiteko ahalmena du, "Goi Ikuskaritza" Espainiako Bankuari dagokiolako. Zabarkeria, hortaz, agerikoa da. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Kutzari buruzko gertakariak hartu duten traza ikusita, Nafarroako Gobernuak zergatik ez du egin ikuskapenik, entitatearen estatutuek ematen dioten ahalmena baliatuta?

Iruñean, 2012ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, atmosferara isurtzen diren gas-kantitateak areagotzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkezturiko galdera, atmosferara isurtzen diren gas-kantitateak areagotzeari buruzkoa erretiratu izanari dagokionez. Gal-

dera hori 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluko ordezkariak hautatzeari buruzko arauak.

2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu eta ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak, 13. eta 15. artikuluetan, Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren izaera eta eginkizunak ezarri eta definitu zituen. Bestalde, kontseilu horren osaera apirilaren 5eko 166/2004 Foru Dekretuan zehaztu da, zeinean kontseilu hori arautzen baita; izan ere, foru dekretu horren 5.3. artikuluan ezarri da kontseiluko bi kide Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak izendatuko dituela –gaur egun, Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak–, Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluen idazkariak ekainaren 14an aurkeztutako idatzian adierazten duen bezala.

Horrenbestez, kontseiluko kide horiek hautatzeko arauak onetsi behar ditu Parlamentuak, eta Erregelamenduko 37.1.9. artikuluari jarraituz, honakoa ERABAKI DUGU:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arau hauek onetsia:

1. Parlamentu-taldeek Sustapen eta Etxebizitza Batzordeko lehendakariari aurkeztuko dizkiote hautagaiak.

2. Sustapen eta Etxebizitza Batzordeko kide diren foru parlamentarien artean eginen da hautaketa, txartel bidezko bozketa isilpekoan.

3. Aldi berean hautatuko dira bi ordezkariak, eta, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

4. Boto gehien lortzen dituzten bi parlamentariak izanen dira hautatuak.

5. Postuetakoren batean berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

6. Hautagaiak aurkezteko epea irailaren 3ko 12:00etan bukatuko da.

Bigarrena. Erabaki hau parlamentu-taldeen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mahaiaren erabakia, 2012ko ekainaren 25ekoa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen urteko lanaldia aldatzen baita.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Legeak, zeina Nafarroako Parlamentuak 2012ko ekainaren 14an onetsi baitzuen, haren zerbitzuko langileen lanaldiaren luzapena jasotzen du, eta urtean 1.628 ordukoa izanen dela.

Nafarroako Parlamentuaren ustez, administrazio publikoen ereduari jarraitu behar dio krisi ekonomikoko uneotan, eta, hortaz, aldatu egin behar da bere zerbitzuko langileentzat ezarrita dagoen urteko lanaldia –1.560 ordukoa, Mahaiak Langileen Batzordearekin sinatutako 2008tik 2011ra bitarteko Hitzarmenaren arabera–, Foru Administrazio-ko langileen lanaldia aldatu den hein berean.

Zerbitzu Orokorretako buruaren txostena ikusita, Mahai Negoziatzailearekin horri buruz egin beharreko bilera eginda, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 34. artikuluan xedatuarekin bat, eta bilera horretan akordiorik lortu ezenez gero, beharrezkoa da Mahaiak Parlamentuaren zerbitzuko langileen lanaldia ezartzeko duen erantzukizuna baliatzea. Horrenbestez, Langileen Estatutuko 37.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ERABAKI DA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen urte osoko lanaldia 1.595 ordukoa izanen dela 2012an.

2012ari geratzen zaion zatiari dagokionez, horrek esan nahi du egunean hamar minutu gehiago egin beharra dagoela, Mahaiak 2011ko abenduaren 27an hartutako erabakiaren bidez ezarritako lanaldiaren hasieran edo amaieran egin beharko direnak. Erabaki hori, hortaz, aldatu egin da.

Funtzionario bakoitzak erabakiko du zein bi egunetan aplikatuko zaizkion bere alde ateratzen diren hogeita minutuak, Zerbitzu Orokorren buruari jakinarazita.

2. Nafarroako Arartekoaren zerbitzuari atxikita-ko langileei ere aplikatuko zaie aurreko puntuko lehen lerrokadan ezarritakoa. Arartekoak erabakiko du, erakunde hori arautzen duen Foru Legearekin eta haren antolamenduari buruzko Erregelamenduarekin bat, nola banatu lanaldiaren handitze hori.

3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, zeina 2012ko uztailaren 1ean sartuko baita indarrean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eleduna aldatzea.

2012ko ekainaren 15ean aurkeztutako idazki baten bidez Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak jakinarazi zuen Roberto Jiménez Alli jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Juan José Lizarbe jaunaren ordez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

